



AURTENGO INAUTERIAK IRUDIMENEZ BETEAK

Karroza eta konpartsa gehiago izan dira. Larunbateko danborrada indartu ala ez berraztertuko du jai batzordeak > 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-02-21**

VILURTEA 1.367.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Galarragaren euroagindua bertan behera geratzea eskatu dute

VILLABONA Senideek eta lagunek manifestazioa antolatu dute hilaren 25ean > 6

Nafar Jokoen ligaxka asteburu honetan amaituko da


LEITZA Aurrerako zein bikote sailkatuko den jakinen dute > 7



Goian Tolosan eginiko elkarretaratzea; 200 lagun baino gehiago elkartu ziren. Behean, Anoetan eta Iruran eginikoa; 80 lagun inguru elkartu ziren. I.T./E.EZEIZA

Babes handia 'Egunkaria'-ren itxieraren bosgarren urtemugan

TOLOSALDEA Eskualdeko hainbat herritan elkarretaratzeak egin zituzten atzo gauean 'Egunkaria libre!' lelopean; ehunka lagun bildu ziren 'Egunkaria auzia' salatzeko > 5



I. GARCIA

IKER IRIARTE
GAI-JARTZAILEA

«Bertsolariak askoz askeago daude, saio batean bezala»

ALEGIA Beterriko Igo Bertsolarien Txapelketan ariko da > 4

«Ahozko delituak eta errugabetasun-presuntziorik eza da liburuaren muina»

ASIER AGIRRE | Idazlea

Literatura » Zarko Petan idazlearen 'Preteklost' liburua euskaratu du, eta 'Iragana' izenburupean argitaratu berri du.

INIGO TERRADILLOS

Asier Agirrek (Belgikan jaioa, baina 2 urterekin etorri zen Tolosara bizitzera, 1976) Zarko Petan idazle esloveniarraren *Preteklost* autobiografia liburua euskaratu du, eta *Iragana* izenburupean argitaratu. Autobiografikoa da Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak bul-tzatuta Erroteta argitaletxeak argitaratu duen liburua.

Zure bigarren liburua da. Lehena ere Zarko Petan idazlearen lan baten itzulpena izan zen.

Lehendabiziko lana idazle esloveniarraren *Aforismoak* lanaren itzulpena izan zen. Asko gustatu zitzaidan lana, eta horretaz gain, Petanen bizitza pertsonala interesgarria iruditu zitzaidan, eta bere biografia itzultzea erabaki nuen jendeak hura ezagutzeko aukera izan zezan. Bera pertsonalki ezagutu ahal izan dut duela gutxi,



E. EZELZA

eta oso jator portatu zen nirekin, oso pertsona interesgarria da. Nik alemanierazko bertsoa erabili dut bere autobiografia itzultzeko.

Zer egin zitzaizun deigarria bere autobiografiatik. Zer kontatzen du 'Iragana' libururik?

Zarko Petan antzerki zuzendaria da lanbidez, eta bereziki ezaguna Europa osoan bere aforismoengatik. Ljubljanan jaio zen, egun Esloveniako hiriburu den hirian,

1929an; garai hartan Jugoslaviako hiria zen Ljubljana. 1933an Zagreb-bera aldatu zen familia, baina II. Mundu Gerra hasi zenean umezurtegi batean babestu behar izan zuen. Liburua Jugoslavia komunistan giroten da. Zati handi bat kartzelan gertatzen da, izan ere, Petan behartu egingo dute Jugoslaviako agintariak soldaduska egitera, medikuek ez gaitzat jo arren. 30 urterekin kanpaleku ba-

tera bidaliko dute, eta soldaduska bukatu baino 2 aste lehenago espetxe militar batean sartuko dute aberria saltzea eta atzerriko indarrentzat espiatu izana leporatuta. Akusazioak, ordea, faltsuak dira, eta Petanek agerian jarriko du guztia goi mailako agintariak erakitako muntaia izan zela. Azkenean akusazio guztietatik aske geratuko da. 18 hilabete igaro zituen kartzelan, 1959 eta 1961 urteen artean. Bigarren Mundu Gerrak Jugoslavian utzitako arrastoa, bi blokeen arteko gerra hotza, Titoren eta Stalinen arteko haserreak, sistemaren eta gizartearen ikuspegi kolektibo eta bakarra, ikuspegi indibidualaren gainetik... bezalako gaiak ere ukitzen ditu. Muina zera dela esango nuke: ahozko delituak eta errugabetasun-presuntziorik eza.

Zein irakurleri zuzendua dago?

Nire ustez, ez da gaztetxo batek irakurtzeko modukoa, politikatik baduelako eta kultura jakitea ezinbestekoa delako. Bereziki Europaren gorabeherak interesatzen zaizkionari asko gustatuko zaiola iruditzen zait.

Zer eman dizu lan hau egiteak?

Nik gozatu egiten dut itzultzen, eta

lan honen kasuan, ez dut enkarguz egin, nik nahi nuelako baizik. Hizkuntzarekin jolas egitea gustatzen zait, euskararekin batez ere. Gurean oso gutxi itzultzen da, eta beti ematen dizu harrotasun puntu bat lan bat itzultzeak, eta are gehiago espainolez edo frantsesez itzulita ez dagoen zerbait itzultzeak.

Zenbat denbora behar izan duzu?

Patxada dexenterekin hartu dut, eta 8 hilabeteetan egin dut. Aurrekoa, *Aforismoak* liburua lan gehiago eman zidan, baina hau prosa izanik errazagoa zen. Dena den, beti daude zailtasunak.

Bigarrena idatzi duzu. Hirugarrenik ba al duzu buruan?

Hainbat proiektu ditut buruan. Zarko Petan gustuko dut, eta agian bere beste lan bat itzuliko dut. Bestela, Europa ekialdeko herrietako literatura ere gustatzen zait, han sorkuntzarako beste eredu bat dutelako, eta globalizazioaren munduan ez daudelako gu bezain beste sartuta.

Euskal itzulpengintza zein egoeratan dago?

Egoerak hobera egin du, eta horren adibide da literatura unibertsalean egin diren itzulpenak. Bestalde, gaur egun idazleek hobe idazten dute. Kontua da eskari baina eskaintza gehiago dagoela. Nire ustez, erakundeek kulturaren gehiago inbertitu beharko lukete, baina irabazirik espero gabe; apostua egin behar da, esaterako idazle gazteen alde.

Futbola » Realeko jokalaririk izandako Genaro Zelaietari omenaldia egingo diote partidaren aurretik; bihar izango da 20:00etan.

I. TERRADILLOS

Futbol Indoor Txapelketaren norgehiagoka berri bat ikusteko aukera izango da bihar Usabal kiroldegian, hain zuzen ere Real eta Real Madrilaren artekoa. Partida 20:00etan hasiko da, Tolosa CFko alebinen norgehiagokaren ostean.

Realeko beterranoen egoitza da Usabal kiroldegia, eta bertan liga-ko bigarren partida jokatuko dute; etxean jokatu zuten aurreko partida Atletico Madrilera aurkakoa izan zen, eta galdu egin zuten, eta etxe-

tik kanpo jokatu zuten Bartzelonaren aurkakoa ere galdu egin zuten Realekoek. Biharko partidarako ahalegin guztiak egingo dituztela irabazteko adierazi zuten atzo eguniko aurkezpenaren taldeko ordezkari eta jokalariek.

Genaro Zelaieta gogoan

Partidaren aurretik omenaldia egingo diote hil berria den Realeko jokalaririk izandako Genaro Zelaietari. Taldearen elastiko bat eta lore sorta bat emango diote Zelaietaren alargunari, eta ohorezko saka es-



Bittor Alkiza, Tinito, Oscar Renedo, Agustin Gajate, Mikel Lasa eta Luis Perez atzoko aurkezpenaren. I. TERRADILLOS

kainiko diote. Bai jokalariren artean, bai eta jarraitzaileen artean omenaldi berezia egitea dela helburua adierazi zuten Realeko arduradunek.

Elola, Andonegi, Taifun, Iturriño, guruzeta, Irazoki eta Zudaire eta Perez izango dira, besteak bes-

te biharko partidaren Real Madrilaren aurka ariko direnak. Talde aurkaririk, berriz, Buyo, Alfonso edota Amavisca bezalako jokalariek ezagunak ikusteko aukera izango da. Oscar Renedo Tolosako Udaleko kirol zinegotziak azaldu bezala, «beraz, partida interesgarria izango

da, eta Real guztion taldea denez bihar Usabalen jende ugari izatea espero dugu».

Futbol Indoor Txapelketa beterranoen arteko txapelketa da, eta inoiz lehenengo mailako txapel-dunak izandako taldeen artean ari da gauzatzen.

Beti alai
jatekoa

Garaian garaian janariak
Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

MENDI-ALDE
Jatetxea

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Orotara, karroza eta konpartsak kontatuz gero, 200 inguru atera ziren kaleetara. INIGO TERRADILLOS

Inauterietan, iaz baino karroza eta konpartsa gehiago atera dira kalera

Gizartea » Datorren urteko jaietako begira, Zaldunita Bezperako danborradarekin zer egin aztertzea erabaki dute.

ESTI EZEIZA

Tolosar askori Inauteriak aipatuz gero aurtengo jaietako oroitzapenak etorriko zaizkie gogora. Gainera, irudituko zaie denbora asko igaro dela ordutik hona. Baina uste baino egun gutxiago pasa dira Inauterietatik, txarangen doinuak kaleetan entzuteari utzi genionetik. Horregatik, joan den ostiralean Jai Batzordea bildu zen aurtengoen balorazioa egiteko.

Orokorrean, Udaleko ordezkariak baikor agertu dira. Inaun adierazleetakotat da, iaz baino karroza eta konpartsa gehiago atera direla kaleetara. Arrazoietako bat,

Andoni Iturzaeta kultur zinegotziaren ustetan, Udalak egindako esfortzua da. Izan ere, ekonomiko ki konpentsatuak dira lehiaketara aurkezten diren karroza eta konpartsak. Bestalde, oro har, jendeak denbora gutxiago izan duelako hauek prestatzeko, «herritarrek irudimen ikaragarria izan» dutela nabarmendu du Iturzaetak. Bestalde joan den urteko arazoetako bati irtenbidea bilatu diote, karrozen ibilbideari, hain zuzen ere. Joan den urteko kexetako bat zen, karrozek ez zutela izaten ibilbide guztia egiteko denborarik. Aurten berriz, denak batera aterabeharretara, zozketa bidez bakoitzak nondik eta zein garaitan atera behar zuten zehaztu zuten. Gainera, zinegotziak argi utzi zuen bezala, «Tolosako Inauterietan ez dago desfile berezirik, dagoena kalea da, eta hona ateratzen dira karroza eta konpartsa guztiak».

Hurrengo urteari begira, aztertu beharreko gai gisa, Zaldunita Bezperako gaueko danborradarena da. Izan ere, jende gutxi hurbildu zen hau ikustera». Horregatik, ekimen hau indartu behar den edo ez, eta hau nola egin behar litzatekeen erabakitzeakotan geratu ziren bilerara bertaratuak. Kultura zinegotziak behin eta berriz aipatutakoaren arabera, «Inauterien sorburua elkarrekin ekimenetan daude, eta hauen esku geratu behar du erabakiak.

Jende kopuruari dagokionean, nabarmena izan da, iaz baino bisitari gutxiago etorri zirela Inauterietara. Horren arrazoietako bat, azterketa garaia izatearena izan zela ondorioztatzen da.

Azkenik, aipatu zuten gaietako bat izan zen baita ere, txosnagunarekin eta zenbait tabernekin, ordutegia ez betetzeagatik izandako arazoak.

Samaniegok bigarren Bandera Berdea jaso du

Hezkuntza » Haur Hezkuntzako eraikin berriagatik eman diote; saria ospatzeko, ekitaldi bat egingo dute gaur.

ERREDAKZIOA

Duela zortzi urte Samaniego Ikastetxea saritua izan zen eta Ingurumen heziketan lana egiteagatik Europako errekonozimendua jaso zuen. Bandera Berdea, Ingurumen Hezkuntzaren Europako Erakundearen eskutik ingurumenaren alde hartutako konpromisua eta Hezkuntza Komunitateko sektore ezberdinetako partaidetza

sustatzeagatik izandako merezimendua izan zuten. Zortzi urte hauetan erakunde europar honek gertutik jarraitu du Samaniegok ingurumenarekin hartutako konpromisua eta Haur Hezkuntzako eraikin ekologikoarengatik bigarren Bandera Berdearekin saritu dute.

Hori dela eta, hau ospatzeko, ekitaldi bat egingo dute gaur, 14:30etik aurrera. Besteak beste ondorengo ekintzak egingo dituzte: Bandera Berdea igoko dute, ikasleek agurra dantzatu dute, eta guraso elkartekoek gorosti bat landatuko dute. Ekitaldiarekin amaitzeko, ikasleek bertso batzuk kantatuko dituzte.

Barre egiten ikasteko tailerra izango da gaur arratsaldean, Kultur Etxean

E. EZEIZA

La risa inteligente kultura elkarteak antolatutako ekimenen baitan, hitzaldia izango da gaur Tolosan. Ekitaldian 19:30ean hasiko da eta Kultur Etxean izango da. Mintzaldi edo tailerraren izenburua honakoa da: barre egiten ikastea, bizitzeko ikastea da.

Saio honetako hizlariak Bharat Martin eta David Martin izango dira. Bi aditu hauek *La risa inteligente* eskolako kideak dira. Saioan edozeinek hartu ahal izango du parte, eta sarrera doakoa izango da.

TXOTX

Urbartete

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laia

Arkolla auzoa, 33 (www.laiaerretegia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@laiaerretegia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturritz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523-905 Errenteria

Ixopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (ixopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leitza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalernia.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com Astigarraga

Gurutzea

Oialume bidea 63 (sarrera Ergoia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

E Elkarrizketa

IKER IRIARTE > Gai-jartzailea

«Bertsolariak askoz askeago daude, saio batean bezala»

Kultura » Beterriko I. Bertsolarien Txapelketan gai-jartzaile ariko da Iker Iriarte alegiara; Amasan da saioa eta finalera joango den bigarren taldea erabakiko da bihar.

IMANOL GARCIA

Iker Iriarte (Alegia, 1984) Gipuzkoako Txapelketan aritu zen gai-jartzaile lanetan eta orain Beterriko I. Bertsolarien Txapelketan ariko da. Amasako Iturri-Goxo jatetxean egingo den bigarren kanporaketan parte hartuko du Iriartek. Bihar izango da hori, 20:30ean. Dagoeneko sarrera guztiak salduta daude.

Ez da lehenengo aldia gai-jartzaile lanetan.

Lehenengo aldiz Gipuzkoako Txapelketan aritu nintzen. Hori pasatu ondoren Amaia Agirrek Jon Zalduari eta niri esan zigun Beterriko Txapelketan aritzeko.

Nolan Gipuzkoako Txapelketan?

Gai-jartzaile bezala herriko saioetan hasi nintzen eta, gero, Gipuzkoako Txapelketa antolatzen ari zirenak esan zidaten ea parte hartuko nuen. Proba egingo nuela rantzun nien. Eta oso gustura aritu naiz. Gero herrietatik ere deitu didate eta gustura hor ere.

Bertsolaritza gustatzen zaizu, noski.

Txiki-txikitatik izan naiz bertsozale eta bertso eskolan egon naiz beti. Ez zen izan gai-jartzearena zerbait pentsatutakoa, gehiago izan da bertso eskolan aritzea, eta gero kasik nahi gabe handitzen joan den kontua izan da.

Agian nahiago bertsolari izatea? Bertsotan bertso eskolan aritu naiz, edo parrandan eta lagunartean. Gure artean dezentetan esan dugu, gai-jartzaileak bertsolari frustratuak gara.

Zu zeu horrela sentitzen zara? Neurri batean bai, ez dakit. Askot



I. GARCIA

tan saioak entzunda inbidia sanao sentitzen dut eta bertsotan horrela egitea nahiko nuela pentsatu.

Gai-jartzaileak ere behar dira.

Nik uste dut saio batean gai-jartzaile batek bertsolariaren adinako protagonismoa duela eta ardura kasik handiagoa. Gai-jartzaile batek ez badaki bertsotaz ezer ere ez, nahiz eta lau bertsolari on egon, goitik behera bota dezake saioa. Hori bai, ezin du izan protagonista, saioa bere inguruan egitea, baina bere garrantzia badu.

Beterriko Txapelketari helduz, lehiaketa berezia da, ezta?

Bertsolariak taldeka aritzen dira txapelketek duten dramatismo puntu hori kentzeko. Gipuzkoako txapelketa pasa berria zenez, ohiok ez diren ariketak prestatzea pentsatu zen, horrekin ere bertsolariak gusturago egoteko.

Eta zuri zer iruditzen zaizu formatu hori?

25-32 urte tarteko bertsolariak parte hartzea ondo iruditzen zait, normalean adin tarte horretan sarriketak eta ez baitituzte izaten eta saioak ere gutxiago. Esan bezala, taldea egiteak ere dramatismo hori kentzen dio txapelketari. Aurreko asteko kanporaketa goza-

men bat izan zen. Saio normal bat ematen zuen, askoz askeago zuden. Horrek eragiten du bertsolariak bereak ere askoz hobeto kantatzea.

Bertsolariak bereak ere horixe esan zuten?

Bai, txapelketa bat ez zuela ematen esan zuten. Iñigo Izagirreraren lagun mina naiz, eta afariaren aurretik esaten zidan txapelketan batean gertatu ez zaiona sentitzen zuela, irrikitan zegoela abesteko.

Nolako saioa joan zen, beraz?

Oso ona. Kezka pixkat bageneukan ariketa bereziak ondo aterako ote ziren eta, egia esan, oso ondo ateraziren.

Zein izan zen kanporaketaren emaitza?

Zilarriturri taldeak irabazi zuen, hau da, Ainhoa Agirreazaldegik, Iñaki Apalategik eta Iñigo Izagirre osatutakoa, bi epaileen botoa jaso ondoren. Entzulegoak Lapurtxulo taldeari, hau da, Iñaki Gurrutxaga, Mantxi eta Beñat Lizasori eman zioten botoa, baina bozketa oso estua izan zen, boto baten alde bakarrak ateratu zutelako. Oso saio parekatua eta ona izan zen. Espero dugu Amasakoa ere berdin ateratzea.

Z Zurea da hitza**Lapurretaz nekatuta**

Irura » Hainbat lapurretan izan dira azken hilabeteetan herrian eta irurarrak «beldurtuta» daudela dio berriemaileak

JOXI

Denok ditugu ezatzeginak lapurretak baina azken hilabeteetan gertatzen ari dena Irurako herrian sinesgaitza da eta oraindik bukaera oso urruna dagoela dirudi. Beldurturik gabilta gure orain arteko herri lasai honetan, lapurretak non nahi, tabernak, lantokiak, ikastola,

eliz eta eliz etxea, etxebizitzak, ur-depositoa, auto kontseziarioa... Era guztietako lapurretak ikusi daitekeenez eta denetarik eraman dute bertatik.

Momentuz ez dago kaltetu fisikorik baino guztion beldurretan dago noiz iritsiko ote den eta ordun izango dira benetako damuak. Nolabait bukatu beharra dauka amets gaizto honek eta ezinbestekoa da erakunde guztiek ahalagintziaz jartzea Irurako herritarrok orain arteko lasaitasunean bizi gaiten berriz ere eta beste herriak sufritu ez dezaten bertan bizi duguna.

Laburrak**Aho batez onartu du Udalbatzak EAEn mozioa**

ADUNA » EAE-ANVren jardun ete-tarean baitan alderdi horrek aurkeztutako mozioa aho batez onartu du Adunako Udalbatzak. Herri horretan zinegotzi guztiak dira EAE alderdikoak. Mozioan zehazten denez «oso larritzat» jotzen da «Espainiak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea». Bestalde, EAE-ANV udal taldearen eskubideak bere osotasunean bermatuak izan daitezkeen neurriak hartzea onartzen da, besteak beste, udal taldeari bere izena eta izaera errespetatuz.

Lehen sorospenei buruzko tailerra antolatu du Udalak

IRURA » Udalak lehen sorospenei buruzko tailerra antolatu du. 20 ordu iraungo ditu eta martxoaren 4an hasiko da. Orduetegiari dagokionez, astearte eta ostegunetan emango da 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroaren prezioa 20 eurokoa da eta Iruran erroldatutakoek 10 euro ordaindu behar dituzte. Izen-ematea udaletxean, liburutegian, 943 69 13 33 zenbakian edo kultura@irura.net helbidera idatziz egin daiteke, hilaren 26a baino lehen.

Barreterapia ikastaroan izen-emate epea luzatuta

ANOETA » Barreterapia ikastaroan izena emateko epea luzatu du Udalak hilaren 27ra arte. Guztira lau saio izango dira, kiroldegian. Orduetegi, aukeran, ostegunetan 17:30etik 19:00era edo larunbatean 10:00etatik 11:30era izango da eta kostua 30 eurokoa. Izen-ematea udaletxean edo kiroldegian egin daiteke.

Emakume bat hil da balkoitik erori ondoren

IBARRA » 63 urteko emakume bat hil zen herenegun gauean Ibarra Apatta-Erreka auzoan, bere etxe-konkalko balkoitik erori ondoren.

Trafiko istripuak Tolosan eta Villabonan

GIZARTEA » N-1 errepidean, Tolosan, kamioi baten eta auto baten arteko istripuaren ondorioz ilara luzeak sortu ziren atzo goizean. Suhiltzaileek gidarietako bat ateratu behar izan zuten bere ibilgailutik. Bestalde, herenegun arratsaldean, Villabonan, A-15ean izandako istripu batean, 37 urteko gizoneko bat hil zen. Errepidea moztuta egon zen tarte batez.

txokoa

4 sarrera pare zozketatuko ditugu!
deitu eta eskuratu



BRUESA GBC
C.B Ciudad de Huelva

OSTIRALA

OTSAILAK **22 - 20:30**

ILLUNBE



Villabonan atzo iluntzean egindako elkarretaratzean 40 lagun inguru bildu ziren. IMANOL GARCIA

Ehunka lagun 'Egunkaria' babestuz

'Egunkaria auzia' » Atzo bost urte itxi zuten 'Euskaldunon Egunkaria'; hau salatzeko hainbat herritan egin zituzten mobilizazioak.

ERREDAKZIOA

Atzo bost urte, Guardia Zibilak itxi zuen *Euskaldunon Egunkaria*, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Juan del Olmoren aginduz. Egun, oraindik epaiketaren zain daude hamabi inputatuak. Hala ere, *Egunkaria*-ren itxieraren bosgarren urteurrenaren harira, gertaera salatzeko hainbat ekitaldi gauzatu ziren atzo eskualdeko hamar herritan: Tolosa, Villabona, Anoeta, Irura, Ibarra, Amezketeta, Alegia, Berastegi, Altzo eta Ibarra. Iluntzean ehunka lagun bildu ziren *Egunkaria libre!* lelopean egindako elkarretaratzeetan. Agerrialdi hauekin gogorarazi nahi izan dutena da duela bost urte hasitako afera oraindik ez dagoela

konpondua. Bestalde, Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ren zuzendariaren esanetan, «epaiketala izan daitekeela ikusita egokia izan daiteke jendea kontzientziazten joateko».

Del Olmo epaileak *Euskaldunon Egunkariak* ETA-rekin lotura izatea leporatu zuen. Hau da, honek adierazitakoaren arabera, «*Egunkaria* ETAK finantzatu zuen, eta ondorioz, zuzendariak eta arduradunak ere ETAK izendatu zituen». Inputatuetako batzuk, sumario nagusian daude sartuta, eta beste batzuk, auzi ekonomikoan. Azkenik, badaude bietan dauden batzuk ere. Hala, kartzelara joateko arriskuan daude oraindik ere auzi-petutak.



80 lagun inguru bildu ziren atzo Anoetako plazan, eta ondoren Irurara joan ziren oinez. ESTI EZBIZA



60 lagun inguru bildu ziren Ibarra egindako elkarretaratzean. ASIER IMAZ



30 lagun inguru bildu ziren atzo iluntzean Amezketan egindako elkarretaratzean. HITZA



40 lagun inguru bildu ziren Berastegiko plazan atzo egindako elkarretaratzean. HITZA



50 lagun inguru bildu ziren Alegian egindako elkarretaratzean. PATXI RENOBALES



Eneko Galarraga billabonatarren senide eta lagunak atzo eginiko prentsaurrekoan «euroagindua bertan behera geratzea» exijitu zuten. A. IMAZ

Galarragaren aurkako «euroagindua bertan behera geratzea» eskatu dute

Politika » Villabonako gaztearen senide eta lagunak, manifestazioa antolatatu dute hilaren 25ean, 20:00etan.

ASIER IMAZ

Eneko Galarraga billabonatarrek hilaren 26ean audientzia berri bat dauka Paueko (Frantzia) Auzitegian, hilabete bateko epean bigarrena. Bertan, Espainiako botere judizialek eskatutako bere aurkako euroagindua aztertuko du Frantziako Justiziak.

Galarragaren senide eta lagunak euro agindua bertan behera geratzea eskatu zuten atzo Villabonan.

«Inolako funtsik gabe»

Villabonako gaztearen senide eta lagunak hilaren 26ean ez dakite zer gertatuko den, «baina Enekoren atxilotze eta entrega eman daiteke».

Eneko Galarraga urtariraren 24ean atxilotu zuten Urriñan (Lapurdi), atzo ingurukoak azaldu zuten, «gezur asko esan dira azken asteotan Enekoren inguruan. Denen bistakoa da Enekoren bizitza erabat publiko izan dela Ipar Eus-

kal Herrian. Beraiek dioten bezala bilatuenean artean aurkitu den garai horretan, semea izan eta familia osatu du, lan egin du eta gizarte segurantzara eta guzti zuen».

Villabonan atzo bildutakoek euro agindua bertan behera geratzea eskatu zuten, «ez duelako inolako funtsik. Garbi geratu zen hori lehen atxilotuta eman zenean, Frantziako Justiziak euro agindua atzera bota baitzuen nahikoa frogaz ez zegoelako».

Manifestazioa eta bidaiak

Eneko Galarragaren senide eta lagunak «komunikabideen lan zikina» salatu nahi izan zuten atzo Villabonan; «zenbait salbuespen kenduta, polizia eta epaileen borroro lanak egin baitituzte. Nola da posible azken bost urteetan gaizkile bilatuena izan dena, atxilotu ondoren kalean libre utzi eta inork ez deus esatea? DVren irakurleek eta erolesek hausnarketa egin beharuko lukete».

Egun hauetarako prestatu duten egitaraua ere aurkeztu zuten atzo Villabonan. Lehenik, hilaren 25ean, «gaztearen askatasuna eskatzeko» manifestazioa egingo dute, *Eneko bizi eta lan Euskal Herria!* lelopean eta 20:00etan he-

rriko plazatik irtenda. Epaiketa egunean berriz, Paueko Auzitegiara joango dira, «billabonatarren elkartasunez betetzera». Horretarako, Iratzar Elkartean zerrendak jarri dituztela azaldu zuten, «bertara joan nahi duen orok izena eman dezan. Goizeko 05:00etan abiatuko gara Villabonatik».

Amasa-Villabonako eragileei eta oro har herritarrei ere zuzendu zitzaizkien Galarragaren senide eta lagunak, mobilizazioetan «parte hartzeko» eskatuz. «Enekoren aurka eta Euskal Herriaren aurka ematen ari diren errepresio mozkorraldi ero guzti hauen aurrean, euren haserre eta protesta agertzeko deia egiten diegu».

«Gatazkaren gordintasuna»

Villabonako agerraldian, Eneko Galarragaren aurkako euroagindua eta ondorengo atxilotetak «gurean berriro ere gatazkaren gordintasuna agerian» utzi dutela azaldu zuten senide eta lagunak. Honen ardura PSOeri eta Espainiako gobernuari leporatu zieten, «Espainiak eta PSOeren gobernuak egiten duen errepresioaren aldeko apustuarek adierazle garbia dugu. Atxilotuta hauek arrazoi politikoak direla medio egiten dira,

oinarrizko eskubideak urratuz eta berme juridikoak ukatuz», azaldu dute.

Euskal Herriak «bizi duen demokrazia oza» ere salatu nahi izan zuten. «Hitza eta erabakia zor zaigu, proiektu politiko guztiak ez dute aukera berdina eta antza, independentziaren alde ezker abertzalean jardutea garesti ordaintzen da gurean. Errepresioak ez dio gatazkari konponbidea ekarriko, guztiz kontrakoa, sufrimendua dakar». Honen harira eta Eneko Galarragaren «eskubide zibil eta politikoak bermatzeko» eskatuz, «bere eskubidea baita Euskal Herriaren lan eta bizitzea», Villabonako udaltxearen mozio bat sartu zutela jakinarazi zuten.

«Maite zaitugu»

Azkenik, atzo burutu zen agerraldian, Galarragaren senide eta lagunak euskal presoenganako maitasun hitzak zabaldu zituzten: «Eneko maite zaitugu, Emilio maite zaitugu, Joxe Mari maite zaitugu, Iñigo maite zaitugu, Pello maite zaitugu, Oskar maite zaitugu... bai horixe, maite zaituztegu. Zuentzat eta zuentzako».

Laburrak

Ezker abertzaleak deituta gaur Batzarra Subegin

IBARRA » Subegi Kultur Elkartean Herri Batzarra egingo dute gaur 19:30ean Ibarroko ezker abertzaleak deituta. Bertan aztertuko dituzten gaien artean, martxoaren 9an egingo diren hauteskundeak aztertuko dituzte. Ezker abertzaleko kideek, herritarrei bertan parte hartzeko deialdia egin diete.

Eski irteera otsailaren 29tik martxoaren 2ra

BELAUNTZA » Kultur Etxeak Oargi Mendi Elkartean laguntzaz eskiatzera joateko irteera antolatu du hilaren 29an. Iluntzean atera eta martxoaren lehen eta 2an Candanchun (Aragoi) eskiatzeko aukera egongo da. 95 euro ordaindu beharko ditu alpino egin nahi duenak eta 75 euro iraupen eskia egin nahi duenak. Prezioaren barnean sartzen dira autobusa, aterpetxea, forfai, aseguria, gosari eta afora. Materiala berriz bakoitzaren esku joango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Belantzarak berri beharpena izango omen dute. Izena emateko aukera Kultur Etxean edo Tabernan jarri dute eta informazio gehiagorako, arratsaldean 943 67 00 20 telefonora dei daiteke.

'Xurdirin Kontzertua' otsailaren 24ean

BERRIBI » Otsailaren 24ean, *Xurdirin Kontzertua* ikusteko aukera egongo da Berribiko frontoan 18:00etatik aurrera. Antolatzaileek azaldu dutenez, «*Xurdirin Kontzertua* memento honetan dagoen antzerki musikarik indartsu eta ikusgarriena da. 2 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua dago; nahiz eta, hauen laguntzaile gisa joaten diren helduak ere oso gustura joaten diren».

Altuna II.a eta Zeberio II.a ikusteko aukera gaur

PILOTA » Hernaniko (Gipuzkoa) Galarreta pilotalekuan erremonte jaialdia ospatuko da gaur 16:00etatik aurrera. Lau partida jokatu dira eta horietako bitan, eskualdeko pilotariak izango dira: Altuna II.a eta Zeberio II.a.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

LANA

■ **Tabernaria.** Anoetako Itzuli Tabernak neska euskalduna behar du 8 edo 4 ordutarako. Interesa-


teuak dei dezala ondorengo telefono zenbakietako batera: 635 74 52 91/ 943 69 43 13.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumea.** Bolder Collie arrazako txakurkume emea oparitzen da. Interesatuak deitu 658 70 59 12 zenbakira (Xabo).

@ **Eztabaidak.** Sartu gure web orrian eta eman zure iritzia bertan aurkitzen diren gaien inguruan. Horretaz gain, gaiak proposatzeko aukera eskaintzen dizu gure web orriak, iritziak eman eta irakurtzeko aukeraz. Gai askoren artean honako hau aurki dezakezu: «EHAKK eta EAEEK ezingo dute hauteskundeetara aurkeztu, Garzonek hiru urtez eten baitu bere jardura politikoak». Eman zure iritzia gure webgunean:

www.tolosaldekohitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Joan den urtean Nafar Jokoen barruan Leitzan jokotako partidetak bat, Leitzako eta Burlatako bikoteen artean. N. G.

Asteburuan amaituko da Nafar Jokoen ligaxka

Pilota » Finalurrekoak jokatzeko Aurrerako zein bikote sailkatu diren jakinen dute eta martxoan amaituko da txapelketa.

NAIARA GARZIA

Asteburu honetan amaituko da Nafar Jokoen bigarren itzulieren ligaxka, eta beraz, zehatz-mehatz finalurrekoetarako zein bikote sailkatuko diren jakinen dute. Au-

rrera Pilota Eskolatik azaldu dutenez, «oraingoz bikote batzuk sailkatu dira, beste batzuk jada txapelketatik kanpo gelditu dira, baina beste zenbaitek txapelketan izanen duten etorkizuna asteburuan erabakiko da». Goiz da beraz ligaxkaren inguruko balantze bat egiteko, baina gauzak «espero bezala» ateratzen ari zaizkiela gehitu dute. «Genituen asmoak ongi ateratzen ari dira».

Bestalde, Nafar Jokoez gain, Iera Agirrek ere igandean beste

norgehiagoka bat jokatu du, Egian, Ruizekin batera Emakumezkoen Eliteko Lehenengo Diarrio Vasco Sarian.

Pilota eskola, gora

Aurten herriko beste 12 mutil inguru hasi dira pilota eskolan, baina kanpotik ere etortzen hasiak dira, Berrobotik, Berastegitik eta Uitzetik, hain zuzen ere. «Oinatzek irakasten du eta horrek izen handia ematen digu, baita 2007an Herri Artekoa irabazteak ere».

Bertso saioa gaur zineman, Elosegik txapelketarako entseatzeko

Bertsolaritza » Elosegirekin batera beste hiru bertsolari ariko dira, «oholtza gainean eta jendaurrean entseatzeko».

N. GARZIA

Gaur herriko zineman 20:00etatik aurrera bertso saioa egingen dute. Leitzako Bertso Eskolatik azaldu dutenez, «Migel Mari Elosegik Nafarroako Txapelketari begira entseatzeko da bertso saio honen helburua».

Horretarako, joan den urtean Diego Riañorekin egin zuten bezalaxe, lau bertsolari elkartuko dira, «oholtza gainean eta jendaurrean entsegu egiteko». Hiru herrikoak izanen dira, Unai Elizasu, Diego Riaño eta Migel Mari Elosegi *Luz* bera. «Kanpotik beste bertsolari bat etorriko da, baina oraindik zehaztu gabe daukagu zein izanen den».

Martxoaren 1ean, Beran izango da

Migel Mari Elosegi *Luz*ek martxoaren 1ean parte hartuko du Berako Kultur-Etxean egingen den finalurrekoan. Hirugarrena izanen da, joan den larunbatekoan Iturenen egin zenaren eta datorren larunbatean Lekunberrin egingen dutenaren ondorengoa. Elosegi beste 5 bertsolariarekin ariko da Beran, Jon Barberena, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe, Juan Mari Lopez eta Ander Fuentesekin.

Finala martxoaren 15ean izanen da, Elizondoko Lur dantzalekuan, 17:00etatik aurrera.

Laburrak

Herri batzarra gaur 19:30ean, udaletxean

ALEGIA » Gaur 19:30ean herri batzarra egingen dute udaletxean, hauteskundeak izanen dituzte hizpide. «Gaiaren garrantzia ikusita», diote antolatzaileek, «herriarrei deia egiten diegu bertan izan daitezela». Bestalde, joan den asteartean egin behar zuten koordinazio batzordea atzeratu egin da eta datorren asteartean, hilaren 26an, egingen dute, udaletxean, 19:30ean.

Odola emateko aukera bihar, osasun-etxean

ALEGIA » Bihar odol-ematea egingen dute 19:00etan, Alegiako osasun zentroan. Bertaraten direnei, ohikoa den bezala, gero jatekoa eta edatekoa emanen zaizkie. Alegian egindako azkeneko saioan Maria Jesus Murua omendu zuten, izan ere emakume hau ohiko odol-emalea da eta orduan 40. aldian zuten odola ematen zuela, eta horretatik omendu nahi izan zuten Maria Jesus Murua.



Maria Jesus Murua. HITZA

» NAFAR JOKOEN LIGAXKAKO AZKEN PARTIDAK

Amazabal Pilotalekuan

- **Larunbatean, lehenengoa.** Aimar Gil eta Ander Alduntzin Zugarralde A-ren aurka (10:00etan hasi eta goiz osoan zehar jokatu dituzte norgehiagoka guztiak, jarraian).
- **Bigarrena.** Ibai Azurmendi eta Iker Sagastibeltza Zugarralde G-ren aurka.
- **Hirugarrena.** Mikel Eraso eta Oi-

natz Mariezkurrena Erreka taldearen aurka.

- **Laugarrena.** Asier Gil eta Lenitz Galartza Beti Onak A taldeko bikote baten aurka.
- **Bosgarrena.** Mikel Sagastibeltza Egues eta Oier Igartua Zugarralde A-ren aurka.
- **Seigarrena.** Martin Etxeberria eta Ander Igartua, Esteribar A-ren aurka.

Kanpoan

- **Bihar Uharte-Iruñean.** Xabier Jaunarena eta Mikel Hernandezena Uharteren aurka (18:30ean).
- **Larunbatean, Iruñean.** Iñaki Saralegi eta Josu Zabaleta Oberena C-ren aurka (10:00etan).
- **Larunbatean, Zubirin.** Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Ander Gartzaiarena, Esteribar A-ren aurka (16:30ean).

Hilberriak





JUANITO UGARTE GURIDI

Zure hitzak esan berriz, esan ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal.

Eskerrik asko Juanito.

TOLOSAN
2008ko otsailaren 21ean

Asegurogintza eta langileak



MAITERE ARANZABE ETXEBERRIA
(Tiburcio Maritxalar-en alarguna)

2008ko otsailaren 19an hil zen, 63 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golanbego-

Bere seme-alabak: Lurdes eta Xavier Aristondo, Felix, Arantxa eta Haimar Eskitabak; bilobak: Iñigo; ilabak: Jose Manuel (1) eta Tiburcio (1); ezkon gurasoak: Luisa Jauregi (Felix Maritxalaren alarguna), anai-arrebak: Blas, Tirroteo (1) eta Joxepa, Esteban eta Katalin, Domingo, Juan eta Anttoni, Pedro; ezkon anai-arrebak: Luis, Ignacio eta Pilar, Manuel (1) eta Nieves, Bixente eta Axun, Arantxa eta Joxus, Jose eta Bixent, osaba-nebak, ilobak, lehenagusiak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde otortu bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarako SAN BARTOLOME paroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

IBARRAN
2008ko otsailaren 21ean

JUANITO UGARTE GURIDI
JAUNA

2008ko otsailaren 19an hil zen, 73 urte zituela.

-Atsedean har bezala-

Bere emaztea: Kikila Iriarte; seme-alabak: Onintze eta Xabier Saizar, Unai, Oihana eta Eli; bilobak: Oier, Ione; anai-arrebak: Inaxio eta Gloria Rodriguez, Arantxa, Axun; ilobak, lehenagusiak eta gainerako ahaideak. Haren aldeko azken agurra, OSTEGUN ARRATSALDEKOLAU TERDIETAN izango da Tolosako hilerrian. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN
2008ko otsailaren 21ean

Helbidea: Kondeko aldapa 26, 4-ekerra.
Oharra: Gorputz belia Tolosako Funeraria Vascongadaren Tanatorioan egongo da, gaur ostegun arratsaldeko 16:20ak arte.

JUANITO UGARTE GURIDI

LASKORAIN IKASTOLAKO
kideen izenean

TOLOSAN
2008ko otsailaren 21ean





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** Jesusen Bihotza ikas-tolaren II. Kultur Astea: hitzaldi-tailerra goizean eta Potxin eta Patxin pailazoan emanaldia HH eta LHko lehen zikloarentzat Txermingo ganbaran 15:30ean eta 16:00etan Mali elkartasuna proiektuaren aurkezpena.

■ **Amasa.** Amasako Iturri-goxo jabetxean 22:30ean bailarako bertsolari gazteen 2. kanporaketa bihar. Bertso-afarirako txartelak jabetxean eta Larramendi Bazkunaren Zizurkilgo bulegoan daude salgai.

■ **Tolosa.** San Esteban elkarteak iaz hil zen Joaquin Santamaria bazkidearen omenezko afaria antolatuta du hilaren 29an. Ezagutu zuten bazkide, lagun, inauterizale eta txarangako kideei irekia da. Izen-ematea, elkartean.

■ **Anoeta.** Xake Txapelketa antolatuta du Udalak martxoaren 9an. Izen-ematea, kiroldegian eta ikastolan.

■ **Anoeta.** Udalak ipuin marrazten lehiaketa 8 urtetik gorakoentzat. Lanak ikastolan eta udaletxean utz daitezke.

Zinema

■ **Tolosa.** *La boda de Tuya* filma emango dute zine-forumean, Leidor aretan 19:15ean eta 21:45ean.

Irteerak

■ **Ibarra.** Igandean 09:30ean Ibarako plazatik abiatuta motozaleen goizeko irteera Alegia, Ordizia, Beasain, Lazkao, Ataun, San Gregorio, Lizarrusti, Etxarri Aranaz, Arbizu (hamaiketako), Uhartea Arakil, Lekunberri, Huitzi, Leitza, Berastegi eta Ibarra.

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatuta elkarteko Corellara irteera antolatuta du martxoaren 14rako. Izen-ematea, elkartean 35 eurotan (bazkideek, 33). Portugalera eta Fatimara ere bidaia antolatuta du apirilaren 14etik 19era. Izen-ematea, elkartean.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuta elkarteko Asturiasera bidaia antolatuta du apirilaren 23tik 28ra (pentsio osoa 250 euro, 245 ez bazkideek). Izen-ematea, elkartean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Atzo II. Mikro-Ipuin Lehiaketaren sari-banaketa egin zuten herriko zineman, eta Mikel Olanoren aresoarrak lehenengo saria irabazi zuen; Kirmen Uribe ere izan zen bertan

Euskararen mintzoa

NAIARA GARZIA

Atzo herriko zinema euskararen, musikaren eta bereziki literaturaren festa alai batean bihurtu zen, II. Mikro-Ipuin Lehiaketaren sari-banaketa egin baitzuten.

Sarituak, aipamen berezia jaso dutenek eta irabazleak, diploma eta liburu sorta jaso zituzten. Aurkezle lanak Leitzako Institutuko irakasle batek egin zituen eta Kirmen Uribe poetaz gain, Koldo Martinez Euskal Kultur Elkargoko (EKE) lehendakaria eta Jose Angel Irigarai (Pamiela argitaletxeakoa) ere oholtza gainera igo ziren, bertaratu zirenei hitz batzuk esateko.

Saritu bakoitzak bere mikro-ipuina irakurri zuen, eta Kirmen Uribe idatzi berri duen poema bat irakurri zuen. Ikasleak umortsu egon ziren ekitaldi osoan zehar, eta musikariek ere ez zen faltatu, institutuko zenbait ikasleek bi abesti abestu baitzituzten.

Euskara Kultur Elkartetik «oso gustura» gelditu ziren ekitaldiarekin eta hurrengo urtean lehiaketa berriro antolatuko dute. Amazabalo zuzendariak ere zenbait hitz esan zituen eta, tartean, Uriberen poema baten zati bat lapurtu zion: *Inperfektua da hizkuntza, higatu egin dira zeinuak/ errotarri zaharrik bezala, ibiliaren ibiliz. Horregatik/ ezin da esan Maitasuna, ezin da esan Edertasuna/ Ezin da esan Elkartasuna, ezin esan/ Ez zuhaitz ez erreka ez bihotz/ Ahaztu egin da antzinako legea/ Alabaina «ene maitea» zure ahotik entzutean/ aitor dut zirrara eragiten didala/ dela egia, dela gezurra.*



Goian, Mikel Olanoren bere mikroipuina irakurtzen; behean, saritu guztiak atzean Kirmen Uriberekin. N. GARZIA

A Agurrak



Urte askoan!

Eukene (Berastegi).

Hamabi muxu goxo aita, ama eta Mireiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak